



ELA

Lan erreforma honi, EZ!

Gelditzeko moduan gaude oraindik!



Ezkerretik hasita, Antonio Garamendi CEOEko burua; Yolanda Díaz Lan ministroa; Unai Sordo CCOOeko idazkari nagusia; eta Pepe Alvarez UGTko idazkari nagusia. Hauek negoziatu duten akordioak Zapateroren eta Rajoyren lan erreformetako alderdirik kaltegarrienak kontsolidatu eta legitimatzen ditu.

Espainiako Gobernuak -PSOE eta Unidas Podemos- behin eta berriz esan zuen Zapateroren eta Rajoyk inposatutako lan erreformak indargabetuko zituela, hau da, azken hamarkadan langile klaseari hainbeste kaltea eragin dioten erreformak. Alabaina, bere hitza jan egin zuen 2021 bukaeran Elkarrizketa Sozialeko Mahaian CEOE, UGT eta CCOOekin akordioa iritsita, izan ere, 2010 eta


2012ko erreformen punturik atzerakoiak ontzat eman baitituzte, egungo legedian hobekuntza arin batzuk egitearen truke.

Indarrean diraute azken urteetan lan merkatua hainbeste prekarizatu duen kaleratze erraz eta merkeak, lan baldintzak alde bakarretik aldatu eta okertzeko enpresarioen ahalmenak eta

negoziazio kolektiboaren estatalizazioak (honen ondorioz EAEn eta Nafarroan negoziatzen diren hitzarmenak ez daude blindatuta). Finean, lan erreformen marmia iraunaraztea da ondorioa.

Zer gertatu da? Ondorio argi bat atera dugu: Elkarrizketa Sozialeko mahaiak langile klasearentzako tranpa, patronalarentzako altxorra eta gobernuentzako aitzakia bilakatu dira.

Haatik, partida ez da amaitu. Lan erreforma hau ezarri duen Errege-Lege Dekretua Madrilgo Diputatuen Kongresuan berretsi behar dute otsailaren 7a baino lehenago.

Eta izapide horretan EAJren eta EH Bilduren botoak hil ala bizikoak izan daitezke. Horregatik, **ELAK euskal diputatuei lan erreforma honi EZetz esatea eskatu die**, erretiratzeko aukera egon dadin; hau da modu bakarra 2010eko eta 2012ko Zapateroren eta Rajoyren lan erreformak indargabetzeko. 

HEMENGO LAN HITZARMENEN ALDE,

KALERATZE ERRAZ ETA MERKEAK SAIHESTEKO,

LAN ERREFORMA HONI, EZ!

MOBILIZAZIOAK

» Urtarrilaren 30ean, 12etan, manifestazioak:




Gasteiz: Bilbao Plaza. Bilbo: Moyua. Donostia: Alderdi Eder.

Iruña: Autobus geltoki zaharra.

» Elkarretaratzeak enpresen aurrean lan erreformaren bozketaren bezperan.

Akordio honek agerian utzi du, beste behin, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak zertarako diren. Madrilen zein Euskal Herrian.

Lan erreforma hau antzerki hutsa da



menen aurrera eraginaren berrezarpena edo azpikontratazioan egindako aldaketak". Beraz, apur batzuen truke "CEOek lortu du mantentzea eta irauraraztea ugazabentzat funtsezkoak ziren kontuak", salatu du Igeregik.

BERTON NEGOZIATZEN DIREN HITZARMENAK LEHENTASUNEZ APLIKATZEA EZINBESTEKOA DA

ELAren ustez, "lan erreforma bat ezin da ezarri kaleratzea mugatu gabe eta argi arautu gabe Euskal Herrian hitzarmen probintziales estatukoaren aldean lehentasuna izango dutela. Jasandako erasoaren ondoren gutxienez eskaera bat dugu: enpresarioek kaleratzeak justifikatu behar izatea eta kaleratzeen kalteordainak lehenagotzea. Halaber, Madrilen sinatzen diren lan hitzarmen kaskarrak gure lurraldean hobetu ahal izatea nahi dugu".

"Horregatik, Kongresuak ezin du lan erreforma hau ontzat eman. EAJk eta EH Bilduk aurka bozkatu behar dute, berriz ere negoziatzen hasteko; oraingoan ezin zaio CEOEri beto eskubiderik aitortu", dio sindikatuak.

"Akordio honen emaitzarik okerreana", dio Igeregik, "izan da lan erreforma indargabetzeko aukera lurperatu dutela, hori alde eta moldez agindu zuten arren".

Argi dago akordio honekin nor ateraden garaile: patronala. Dagoeneko esan du ez duela onartuko akordioko hizki bat ere aldatzerik. Argi dago eurentzat pagotxa dela akordio hau. Horregatik, hori gertatzea eragotzi behar dugu. **A**

PSOEk eta Unidas Podemosk Elkarrizketa Sozialeko Mahaia baliatu dute beren hauteskunde programa ez betetzeko aitzakia merke gisa; izan ere, Rajoyren lan erreforma indargabetuko zutela agintu zuten programan.

Gainera, CCOO ez da mugatu akordio antisozial honetarako beharrezko konplizea izatera. Egunotan saiatzen ari da CEOErikiko akordioa Kongresuan hobetzeko aukera eragozten. Benetan tristeza sindikatu baten aldetik.


El propio Rajoy ha resumido mejor que nadie el acuerdo alcanzado: "La reforma laboral ha quedado como estaba", ha afirmado.

Pello Igeregi ELAko negoziazio kolektiboko arduradunak gogoratu duenez, "2010eko eta 2012ko lan

Rajoyk berak akordioa inork baino hobeto laburbildu du: "Lan erreforma bere horretan geratu da", esan du.

erreformek langileon indar erlazioa ahuldu zuten: kaleratzeak merkatu eta erraztu zituzten; enpresei aukera eman zieten ordezkari sindikalekin hitzartua alde bakarrez aldatzeko; estatu mailako hitzarmenei lehentasuna eman zieten, eta horrek lan baldintza okerragoak eragin zituen...".

Egungo akordioak puntu nagusi horiei eutsiko die, "hobekuntza txiki batzuen truke -nabarmendu du Igeregik-; hala ere, hauetako asko Auzitegi Goreneko jurisprudenzia medio lotuta zeuden. Esaterako, obrako kontratua, hitzar-



Ez dute indargabetu

Espainiako Gobernuak bi urtez esan izan du 2012ko lan erreforma indargabetuko zuela. Horretarako, aldaketa sakonak bilatzen zituzten eragile eta alderdi politikoen artean sozioak behar zituen. Bada, ELAk uste du etsigarria dela lan erreforma indargabetu nahi zutenekin akordioa bilatu ordez, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian CEOE patronalarekin akordioa sinatzeari lehentasuna eman izana.

Akordioaren ondorioz okerrena erreforma indargabetzeko aukera lurperatu izana izan da. Ez dute beraien hitza bete, baina gainera lan erreformak derogatzeko erabakia behin betiko ukatu dute.

Gogoratu beharra dago 2012ko lan erreforma Alderdi Popularrak inposatu zuela. Elkarrizketa Sozialako Mahaia ez zen bildu ere egin. Orain erreforma hari buelta eman behar zaionean etsigarria da Gobernuak, CCOOk eta UGTk CEOErekin akordioa bilatu nahi izana.

PP agintera itzultzen bada ez du inolako eragozpenik izango onartu diren hobekuntza txiki horiek ezabatzeko, eta CEOEk babesa emango dio. **A**

Prozesu antidemokratikoa

Espainiako Gobernuak erreforma dekretu bidez onartzea erabaki du, ezinezkoa izan dadin Kongresuan eztabaidatzea eta aldatzea. Beste behin ere, gaitasun demokratiko eskasa erakutsi du Gobernuak. Sanchezek gobernagarritasun blokea deitutakoari dekretuaren alde bozkatzeko eskatu dio. Hau da, PSOEk eta Unidas Podemos, lehenik, ez dute programa bete, gero ustezko aliatuen bizkar negoziatu dute, eta, azkenik, aldeko botoa emateko eskatu diete.

Lan erreforma indargabetzeko biderik eraginkorrena dekretu hori atzera botatzea da. Horixe eskatu dio ELAk behin eta berriz EAJri eta EH Bilduri. Besteak beste, jokoan dagoelako euskal hitzarmenek Estatuko gainetik beren lehentasuna bermatzea. Izan ere, akordio horrek ateak irekiko litzioke Euskal Herriko lan baldintzak prekarizatzei. Garamendik dio sindikatuek beren lurraldeetan askatasunez negoziatu ahal izatea merkatu batasunaren aurka doala. Gezurra da hori: lan harremanen inguruan berak duen ideia zentralizatzailearen eta prekarioaren aurka baino ez du egiten.

Hala, ezinbestekoa da Euskal Herriko eragile sindikal eta sozialen erantzuna eskubideak irabazteko eta esparru propioa defendatzeko. Beharrezkoa eta zilegia da erreforma honen indargabetzea eskatzea. **A**

LAN ERREFORMA HONI EZ!



2010-2012 erreformak PSOE - PP

Indargabetzea ekarriko luketena

Orain aldatuko da?

KALERATZEETAN
KALTEORDAINA URTEKO
33 EGUN X 24 HILABETE

KALTEORDAINA URTEKO
45 EGUN X 42 HILABETE

EZ

KALERATZE KOLEKTIBOAK
ADMINISTRAZIOAREN
KONTROLIK GABE

KALERATZE KOLEKTIBOAK
ADMINISTRAZIOAREN
KONTROLAREKIN

EZ

KALERATZE OBJETIBOAK
AURREIKUSPENEN ARABERA

KALERATZE OBJETIBOAK
EGOERA OKERRA FROGATU
ONDOREN

EZ

EMPRESA HITZARMENEK
SEKTOREKOA OKERTZEKO
AUKERA

EMPRESA HITZARMENEK
LAN BALDINTZAK SOILIK
HOBETZEKO AUKERA

ERDIZKA,
SOILIK SOLDATETAN

KALERATZEETAN
LANGILEEK TRAMITAZIO
SOLDATAK EZ JASOTZEA

TRAMITAZIO SOLDATAK
BERRESKURATZEA

EZ

ESTATUKO SEKTOREKO
HITZARMENEK EUSKAL
HERRIKO NEGOTIAZIOAK
MUGATZEKO AUKERA

EUSKAL HERRIAN
ESTATUKO HITZARMENAK
HOBETZEKO AUKERA
BERMATZEA

EZ

HITZARMENEN
ULTRAAKTIBITATEA
URTEBETEKOLA

ULTRAAKTIBITATEA
MUGAGABEA

BAI

EMPRESAK HITZARMENAK
EZ BETETZEKO AUKERA

HITZARMENAK EZ
BETETZEKO AKORDIO
BEHAR IZATEA

EZ

EMPRESAK HITZARMENAK
EZ BETETZEKO AUKERA

HITZARMENAK EZ
BETETZEKO AKORDIO
BEHAR IZATEA

EZ

LANGILEEK MUGIKORTASUNA
EMPRESARIEK ALDEBAKARREZ

LANGILEEK MUGIKORTASUNA
MUGATUA

EZ

EMPRESAK LANALDIAREN
10 ALDEBAKARREZ
IMPOSATZEKO AUKERA

SOILIK HITZARMEN
BITARTEZ MARGUTASUNA
IZATEA

EZ

KLASIFIKAZIO PROFESIONALA
ALDATZEKO AUKERA

KLASIFIKAZIO PROFESIONALA
HITZARMENEN ARABEKOA
IZATEA

EZ